



ZIZURKILGO UDALA

### OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2017ko irailaren 25a, astelehena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

### CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **25 de Septiembre de 2.017, lunes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

### EGUNEKO AZTERGAIK

1.- **AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2017.07.27).**

2.- **2017ko AURREKONTUAREN 1/2017 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.**

3.- **EUDELEN GAITZESPEN IRMOA LONDRESKO AZKEN ATENTATUAREN AURREAN.**

4.- **“KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIAREKIN BAT” EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

5.- **KATALUNIAREKIN ELKARTASUNA ADIERAZTEKO “KATALUNIAREKIN KOORDINAZIO GUNEA”K AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

6.- **ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (121/2017tik 146/2017ra).**

7.- **GALDE-ESKAKIZUNAK.**

### ORDEN DEL DÍA

1.- **APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (27.07.2017).**

2.- **APROBACION DE LA MODIFICACION DE CREDITOS Nº 1/2017 DEL PRESUPUESTO DE 2.017**

3.- **CONDENA DE EUDEL ANTE EL ULTIMO ATAQUE TERRORISTA EN LONDRES.**

4.- **MOCION “CON CATALUÑA, CON LA DEMOCRACIA” PRESENTADA POR EH BILDU.**

5.- **MOCION PRESENTADA POR “KATALUNIAREKIN KOORDINAZIO GUNEA” DECLARANDO SOLIDARIDAD CON CATALUÑA.**

6.- **COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (121/2017 al 146/2017).**

7.- **RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Zizurkilen, 2017ko irailaren 20an

Alkatea.

Zizurkil, 20 de Septiembre de 2.017

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2017ko IRAILAREN 25ean EGINDAKO  
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA  
CELEBRADA EL DIA 25 DE SEPTIEMBRE  
DE 2.017**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA/ALCALDE:**

José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Arkaitz Zaldúa Jauregi (EH Bildu)

Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.)

Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)

José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)

María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.)

Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamazazpiko irailaren hogeita bosteko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udaltzatza bildo da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) eta Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN  
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA  
(2017.07.27).**

Udalbatzak, ahobatez erabaki du 2017ko uztailaren 27an egindako Bilkuraren Akta onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veinticinco de Septiembre de dos mil diecisiete, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) y Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL  
ACTA DEL PLENO ANTERIOR  
(27.07.2017).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 27 de Julio de 2.017



ZIZURKILGO UDALA

## **2.- 2017ko AURREKONTUAREN 1/2017 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.**

Zizurkilgo Udal honetako 2017ko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espediente aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko txostena eta onspen proposamena irakurri dira.

Jarraian, eta proposamena ikusirik, Udalbatzak bozketa egin du proposamena onartzeko. Emaiza honako hau izan da:

- Aldeko botoak: 9 (5 Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 de S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak honako hau erabaki du, botoen gehiengoz:

Lehena.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1/2017 zenbakiko Kreditu Aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta Akta honen I Eranskinan argitaratzen den kapitulukako laburpenaren arabera.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontua onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

## **2.- APROBACION DE LA MODIFICACION DE CREDITOS N° 1/2017 DEL PRESUPUESTO DE 2.017**

Dada lectura del expediente de modificación de créditos, mediante créditos adicionales que afecta al Presupuesto de 2.017 de este Ayuntamiento de Zizurkil.

Visto el informe emitido por el Secretario-Interventor, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa.

Visto el informe favorable y propuesta de aprobación formulado por la Comisión Informativa de Hacienda.

Seguidamente y vista la propuesta, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (5 de EH Bildu, 4 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que la Corporación, por mayoría de votos, acuerda:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante créditos adicionales nº 1/2017, que afecta al Presupuesto del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y resumen por capítulos que se detalla en el Anexo I de este Acta.

Segundo.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto.



ZIZURKILGO UDALA

### **3.- EUDELEN GAITZESPEN IRMOA LONDRESKO AZKEN ATENTATUAREN AURREAN.**

Eudelek Londresko azken eraso terroristaren harira prestatutako gaitzespen-agiriaren berri eman da. Horrez gain, adostu da aurrez Eudelek abuztuaren 17an Bartzelonan eta Cambrilsen gertatutako atentatuei lotuta egindako beste adierazpen baten berri ematea.

Adierazpen horiek ikusirik, udalbatzak aho batez erabaki du bi adierazpen horiekin bat egitea. Akta honen II eta III eranskinetan ageri dira aipatutako adierazpenak.

### **4.- “KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIAREKIN BAT” EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Akta honen IV Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 5 (5 EH Bildurenak).
- Aurkako botoak: 1 (1 de S.V.-E.S.).
- Abstentzioak: 3 (3 E.A.J.-P.N.V.renak).

Beraz Udalbatzak, botoen gehiengoarekin, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

E.A.J.-P.N.V.k adierazi du bozketa horretan abstenitu egin dela, gai-zerrendako 5. puntuan aurkeztuko den mozioarekin adostasun handiagoa duelako.

S.V.-E.S.k adierazi du aurka bozkatu duela, prozesuak ez duelako errespetatzen indarrean dagoen legedia, eta, gainera, Kataluniako Parlamentutik bertatik zalantzan jartzen delako prozesua legezkoa izatea.

### **3.- CONDENA DE EUDEL ANTE EL ULTIMO ATAQUE TERRORISTA EN LONDRES.**

Se da cuenta del manifiesto de condena de Eudel ante el último ataque terrorista en Londres. También se acuerda dar cuenta de un manifiesto anterior que emitió Eudel en relación con los atentados terroristas de Barcelona y Cambrils ocurridos el pasado día 17 de Agosto.

Examinados los mismos, la Corporación, por unanimidad, acuerda mostrar su adhesión a ambos manifiestos, que son los que se reflejan en los Anexos II y III del presente Acta.

### **4.- MOCION “CON CATALUÑA, CON LA DEMOCRACIA” PRESENTADA POR EH BILDU.**

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo IV del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 5 (5 de EH Bildu).
- Votos en contra: 1 (1 de S.V.-E.S.).
- Abstenciones: 3 (3 de E.A.J.-P.N.V.).

Por lo que, el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que se ha abstenido en esta votación ya que está más de acuerdo con la Moción que se va a presentar en el punto 5º del orden del día.

S.V.-E.S. manifiesta que vota en contra porque el proceso no respeta la legalidad vigente e incluso desde el propio Parlamento Catalán se duda de su legalidad.



## ZIZURKILGO UDALA

### **5.- KATALUNIAREKIN ELKARTASUNA ADIERAZTEKO “KATALUNIAREKIN KOORDINAZIO GUNEA”K AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Akta honen V Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (5 EH Bildurenak eta 3 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Aurkako botoak: 1 (1 de S.V.-E.S.).
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, botoen gehiengoarekin, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

S.V.-E.S.k adierazi du aurka bozkatu duela, prozesuak ez duelako errespetatzen indarrean dagoen legedia, eta, gainera, Kataluniako Parlamentutik bertatik zalantzan jartzen delako prozesua legezkoa izatea.

### **6.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (121/2017tik 146/2017ra).**

2017ko uztailaren 28tik irailaren 19ra Alkateak sinatutako 121/2017tik 146/2017ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da. Jatorrizkoak, Alkatezaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **7.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

José Antonio Sánchez zinegotziak (S.V.-E.S.) zenbait gai proposatu ditu, kontuan hartzeko eta konpontzen saiatzeko:

Ugare auzora sartzeko bidearen arriskua. Uztailan, auto batek, abiada bizian zetorrela, kontrola galdu zuen, eta aparkatutako hainbat ibilgailuren kontra joan zen. Inork ez zuen minik hartu, baina edozer garaitan gerta daiteke ezbeharren bat.

### **5.- MOCION PRESENTADA POR “KATALUNIAREKIN KOORDINAZIO GUNEA” DECLARANDO SOLIDARIDAD CON CATALUÑA.**

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo V del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (5 de EH Bildu y 3 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 1 (1 de S.V.-E.S.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que, el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

S.V.-E.S. manifiesta que vota en contra porque el proceso no respeta la legalidad vigente e incluso desde el propio Parlamento Catalán se duda de su legalidad.

### **6.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDIA (121/2017 al 146/2017).**

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 121/2017 al 146/2017 firmados por la Alcaldía entre el 28 de Julio y el 19 de Septiembre de 2.017, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

### **7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El concejal José Antonio Sánchez (S.V.-E.S.) plantea algunas cuestiones para que se toma nota y se procuren solucionar:

Peligrosidad en el vial de Ugare auzoa. El pasado mes de Julio un coche, circulando a toda velocidad, perdió el control y chocó contra varios vehículos aparcados. En este caso no hubo daños personales, pero en cualquier otro momento si puede haberlos.



## ZIZURKILGO UDALA

Eskatu du neurriak har daitezela ibilgailuak eremu horretan gehiegizko abiaduran ez ibiltzeko; besteak beste, ibilgailua murrizteko falta diren sakanguneak konpontzea eta jartzea, etab.

Alkateak adierazi dio neurriak hartuko direla horretarako, eta, bide batez, adierazi dio gai hori oso garrantzitsua dela, baina garrantzi bera duela baita ere Ugare auzoan zaborren bilketako ordenantza sistematikoki ez betetzeak. Gai hori ere aztertu beharko litzateke.

José Antonio Sánchezek (S.V.-E.S.) hizketara ekarri du eraikinen fatxadetako pintaden gaia, eta adierazi du larriagotu egin dela Elbarrenako jaietan. Hartuko al da neurririk pintadak kentzeko?

Alkateak erantzun dio Udalak kenduko dituela pintadak eraikin publikoetatik, baina ez eraikin pribatuetatik, aurreko osoko bilkuretan azaldutako arrazoiengatik.

José Antonio Sánchez zinegotziak (S.V.-E.S.) informazioa eskatu du Elbarrenan kokatuta dagoen kutxazain automatikoko lapurreta-saiakerari buruz, eta galdetu du ea berriz funtzionamenduan jarriko duten.

Alkateak gertatutakoari buruzko informazioa eman du, eta jakinarazi dio bere ustez kutxazaina berriz funtzionamenduan egon ahal izango dela.

Azkenik, José Antonio Sánchez zinegotziak (S.V.-E.S.) eskatu dio ahalik azkarren bilera bat deitzeko, zabor-bilketako arazoaren jarraipena egin ahal izateko.

Alkateak adierazi dio hala egingo dela.

Solicita se tomen medidas para evitar el exceso de velocidad en esa zona, tales como reponer y reparar los badenes reductores de velocidad que faltan etc.

El Alcalde le comunica que se tomarán las medidas necesarias para ello y de paso le comenta que, siendo éste un tema muy importante, también lo es el del incumplimiento sistemático, precisamente en esa zona de Ugare auzoa, de la ordenanza de la recogida de las basuras. También habría que plantearse ese tema.

El concejal José Antonio Sánchez (S.V.-E.S.) plantea el tema de las pintadas en fachadas de edificios, que se han incrementado a raíz de las fiestas de Elbarrena. ¿Se van a tomar medidas para eliminarlas?

El Alcalde le contesta que el Ayuntamiento quitará las pintadas de los edificios públicos, pero no las de los edificios privados, por los motivos expuestos en Plenos anteriores.

El concejal José Antonio Sánchez (S.V.-E.S.) solicita información sobre el intento de robo del cajero automático de Kutxabank en Elbarrena y si éste volverá a estar operativo.

El Alcalde le informa sobre lo sucedido y le comunica que cree que en breve el cajero podrá estar en funcionamiento.

Finalmente el concejal José Antonio Sánchez (S.V.-E.S.) solicita que a la mayor brevedad posible se convoque una reunión para realizar el seguimiento al problema de la recogida de basuras.

El Alcalde le comunica que así se hará.



ZIZURKILGO UDALA

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeita bost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y veinticinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

O.I.  
ALKATEA.

Vº Bº  
EL ALCALDE.





ZIZURKILGO UDALA

## I ERANSKINA -- ANEXO I

<b>1/2017 KREDITU ALDAKETAREN LABURPENA</b>
<b>RESUMEN DE LA MODIFICACION DE CREDITOS 1/2017</b>

	<b>GASTUEN GEHIKUNTZA INCREMENTO GASTOS</b>	<b>GASTUEN GUTXITZEA DISMINUCION GASTOS</b>	<b>FINANTZIAZIOA SARRERAK FINANCIACION INGRESOS</b>
<b>1 KAPITULUA</b>	52.400 €	- €	
<b>2 KAPITULUA</b>	26.710 €	- €	- €
<b>3 KAPITULUA</b>	- €	- €	- €
<b>4 KAPITULUA</b>	22.350 €	15.000 €	- €
<b>5 KAPITULUA</b>	- €	- €	- €
<b>(1-5)</b>	<b>101.460 €</b>	<b>15.000 €</b>	<b>- €</b>
<b>6 KAPITULUA</b>	34.520 €	103.500 €	- €
<b>7 KAPITULUA</b>	- €	- €	21.990 €
<b>8 KAPITULUA</b>	5.410 €	- €	900 €
<b>9 KAPITULUA</b>	- €	- €	- €
<b>(6-9)</b>	<b>39.930 €</b>	<b>103.500 €</b>	<b>22.890 €</b>
<b>GUZTIRA-TOTAL</b>	<b>141.390 €</b>	<b>118.500 €</b>	<b>22.890 €</b>



ZIZURKILGO UDALA

## II ERANSKINA -- ANEXO II

ZIZURKILGO UDALA

2017 IRA. 20

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia ..... 206 .....



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

### EUELEN GAITZESPEN IRMOA LONDRESKO AZKEN ATENTATUAREN AURREAN

EUEDElek gogor gaitzesten du Londresko metroan egindako azken eraso terrorista, atzo ostirala, non hainbat zauritu gertatu diren.

Euskadiko Udalen Elkarteak erabateko irmotasunez gaitzesten du indarkeria terroristaren basakeria. Era berean, dolumina eta elkartasuna helarazi nahi dizkie biktimen senideei, eta espero du zauritutako pertsona guztiak ahalik eta lasterren sendatzea.

Euskadiko Udaletatik besarkada solidario bat eta hurbiltasun sentimendurik zintzoena bidali nahi diegu Londresko hiriari eta Britainiar herritarrei, une latz hauetan.

Bilbon, 2017ko irailak 16.

### CONDENA ENÉRGICA DE EUEDEL ANTE EL ÚLTIMO ATAQUE EN LONDRES

EUEDEL condena enérgicamente el último ataque terrorista perpetrado ayer viernes en el metro de Londres, con el resultado de numerosas personas heridas.

La Asociación de Municipios Vascos muestra su más absoluta repulsa ante la barbarie de la violencia terrorista y traslada su pesar y solidaridad a las familias de las víctimas, deseando una pronta recuperación de todas las personas heridas.

Desde los Municipios Vascos se quiere enviar un solidario abrazo y el sentimiento más profundo de cercanía a la ciudad de Londres, así como a todo el pueblo británico, en estos difíciles momentos.

Bilbao, a 16 de septiembre de 2017.

**EUEDEL**

T. 94 423 15 00/ Plaza del Ensanche 5

[www.eudel.eus](http://www.eudel.eus)



ZIZURKILGO UDALA

### III ERANSKINA -- ANEXO III

ZIZURKILGO UDALA

2017 ABU. 18

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia ..... 167 .....



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

**EUDELek BETE-BETEAN GAITZESTEN DITU  
CAMBRILSKO eta BARTZELONAKO  
ATENTATUAK, ETA GAUR, OSTIRALEAN  
12:00etan, ELKARRETARATZEAK  
ANTOLATZEKO ESKATU NAHI DIE UDALEI**

Atzo Bartzelonan izandako atentuekin egin zuen bezala, EUDELek gaitzespen irmoa agertu nahi du gaur goizaldean Cambrilsen izandako atentatuaren aurrean. EUDELek erabateko irmotasunaz gaitzesten du berriro ere indarkeria terroristaren basakeria, eta dolimina eta elkartasuna helarazi nahi die biktimen senide eta hurbilekoei.

EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak berriro gonbit egiten die udalei 5 minutuko elkarretaratze isiletarako deia egiteko, gaitzespena eta solidaritatea agertzeko, GAUR, ostirala, abuztuaren 18an, 12:00etan, udaletxeen aurrean.

Euskadiko udaletatik besarkada solidario bat eta hurbiltasun sentimendurik zintzoena bidali nahi diegu Bartzelonako eta Cambrilsko udalerriei, une latz hauetan.

Bilbon, 2017ko abuztuaren 18an.

**EUDEL CONDENA ENÉRGICAMENTE LOS  
ATENTADOS DE CAMBRILS Y BARCELONA E  
INVITA A LOS AYUNTAMIENTOS A  
CONVOCAR CONCENTRACIONES HOY  
VIERNES A LAS 12:00**

Al igual que hiciera ayer con el atentado cometido en Barcelona, EUDEL condena enérgicamente el atentado perpetrado esta madrugada en Cambrils. EUDEL muestra nuevamente su más absoluta repulsa ante la barbarie de la violencia-terrorista, y traslada su pesar y solidaridad a los familiares y allegados de las víctimas.

La Asociación de Municipios Vascos-EUDEL reitera su invitación a los Ayuntamientos a convocar concentraciones silenciosas de 5 minutos en señal de repulsa y solidaridad HOY, viernes, 18 de agosto, a las 12:00 horas del mediodía, frente a los ayuntamientos.

Desde los Municipios Vascos se quiere enviar un solidario abrazo y el sentimiento más profundo de cercanía a las ciudades Barcelona y Cambrils en estos difíciles momentos.

Bilbao, a 18 de agosto de 2017.

**EUDel**

T. 94 423 15 00/ Plaza del Ensanche 5

[www.eudel.eus](http://www.eudel.eus)



ZIZURKILGO UDALA

## IV ERANSKINA -- ANEXO IV

ZIZURKILGO UDALA

2017 IRA. 20

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia ..... 905 .....

### KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIOAREKIN BAT.

#### MOZIOA

Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari atak irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.


Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Zizurkilgo Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:

1.- Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.

2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiazen ditu. Madrilgo Gobernua, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.

3.-Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.




ZIZURKILGO UDALA

4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoek alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

6.- Urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesari adierazi asmoz..



ZIZURKILGO UDALA

## CON CATALUÑA, CON LA DEMOCRACIA

### MOCIÓN

En el marco de un proceso de largos años, y abriendo las puertas a la demanda de una mayoría de la ciudadanía, el pueblo de Cataluña se ha dotado de recursos democráticos para poder decidir libremente su futuro. Las principales instituciones de Cataluña han decidido firmemente dar paso a la voluntad de la ciudadanía.

Los pasos que se han dado en Cataluña con el apoyo de la voluntad de la ciudadanía, han sido contrarrestados desde Madrid con la supuesta razón de la fuerza, del desprecio y de leyes obsoletas.

Ante este grave ataque contra las vías democráticas, el Ayuntamiento de Zizurkil debate y aprueba la siguiente moción:

- 1.- Este ayuntamiento reconoce la total legitimidad del referéndum que el Parlamento de Cataluña desea llevar a cabo. Y es que la voluntad de la ciudadanía libremente expresada constituye el instrumento político más eficaz para la construcción del futuro de cualquier pueblo o colectivo.
- 2.- Este ayuntamiento denuncia y rechaza el ataque del estado español contra las decisiones soberanas del pueblo de Cataluña y del Parlament. Porque el Gobierno de Madrid, los tribunales y el Tribunal Constitucional no pueden estar por encima de la voluntad democrática expresada por una amplia mayoría de la ciudadanía de Cataluña.
- 3.- Rechazamos rotundamente llamar a declarar a alcaldes democráticamente elegidos por los ciudadanos de Cataluña. Nos oponemos a la imputación de los alcaldes catalanes que quieren poner en práctica un derecho democrático.



ZIZURKILGO UDALA

4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

6.- Urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babes adierazi asmoz..



ZIZURKILGO UDALA

## V ERANSKINA -- ANEXO V

ZIZURKILGO UDALA

2017 IRA. 18

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia ..... 898 .....

Jaun/Andre agurgarriak,

**Kataluniarekin** koordinaziogunetik idazten dizuegu, herri katalanarekin elkartasuna sustatzeko elkartu garen bilgunetik. Nazio Batuen Erakundeak onartu zuen moduan, autodeterminazio eskubidea herri guztiei dagokien eskubide bat da eta, beraz, Herri Katalanari ere hori badagokio. Horregatik beheko mozioa edo antzeko elkartasun mezu bat onartzea eskatu nahi dizuegu:

### **Kataluniarekin elkartasuna adierazteko mozio proposamena**

Kataluniako erreferenduma dela eta, udalbatzari / batzar nagusiei / legebiltzar edo parlamentuari honako proposamen hauek egin nahi dizkiogu:

- 1- Espainiar Gobernuak hasi duen errepresio bidea (atxiloketak, arlo ekonomikoan autonomia bertan behera iztea ...) erabat gaitzestea eta arbiuatzea.
- 2- Autodeterminazio eskubidea herri guztiei dagokien oinarrizko eta ezinbesteko eskubidea denez, Kataluniari bere etorkizuna erabakitzeke eskubide hori dagokiola aitortzea.
- 3- Kataluniako erreferendumarekin elkartasuna publikoki adieraztea.
- 4- Udaletxean / Batzar Nagusietan / Legebiltzar edo Parlamentuan Kataluniako ikurra jartzea.

Adeitasunez,

**Kataluniarekin** koordinaziogunea